

**Bildutakoak:**

<b>Patxi Ibarguren Etxeberria</b>	Lehendakaria eta Hernaniko Udaletik
<b>Pepe Iparraguirre Balda</b>	Andoaingo Udaletik
<b>Iratxe Begiristain Otegi</b>	Usurbilgo Udaletik
<b>Jorge Segurado Iriondo</b>	Urnietako Udaletik
<b>Nuria Fernandez Castrillo</b>	Lasarte-Oriako Udaletik
<b>Xabier Urdangarin Lasa</b>	Astigarragako Udaletik

Akta Zenbakia  
**00000003**

Eguna  
**2024/03/11**

Iraupena  
**1h 23 min**

**Asistentzia teknikoa:**

<b>Julen Mungia Gorrotxategi</b>	Mungia	Idazkari-Kontuhartzailea
<b>Helene del Río Laboa</b>		Zuzendaria

**Parte hartzen du ere**

<b>Saioa Uzkiano</b>	Aldibereko interpretaria
----------------------	--------------------------

**Gai Zerrenda**

- 1.- 2024/02/19(e)an egindako bileraren aktaren zirriborroa irakurri eta onartzea, bidezko bida.
- 2.- Mankomunitateko zerbitzuak eta egitasmoak azaltzea
- 3.- Mankomunitateko euskara-irizpidei buruzko gaia eztabaideatzea eta tratatzea
- 4.- ELKAR EKIN: eztabaideatzea EAGIren finantzaio falta beraien formakuntza aurrera eramateko.
- 5.- Laneratze enpresa bat kontratatzeko oinarrizko informazioa eta konpromezua jasotzea udalen partetik, plegu bateratuak prestatzen hasteko.
- 6.- Komunikazioa: Definitzea udaleko zer langilek jasoko duen Mankomunitateko boletina
- 1.- Lectura y aprobación, si procede, del borrador del acta de la sesión celebrada el 19/02/2024.
- 2.- Explicar los servicios y actuaciones realizados por la Mancomunidad
- 3.- Tratar y debatir sobre los criterios-lingüísticos de la Mancomunidad
- 4.- ELKAR EKIN: tratar el tema de la falta de financiación de EAGI para que lleven a cabo su formación
- 5.- Recibir de parte de los Ayuntamientos información básica y el compromiso para la contratación de una empresa de inserción, para poder comenzar a elaborar pliegos conjuntos.
- 6.- Comunicación: definir qué personas recibirán el boletín emitido por la Mancomunidad

- |   |   |
|---|---|
| 7.- Dagokion ekitaldiko Kontu Orokorrak onartu ahal izateko legealdi honetako Kontuen Batzorde Berezia sortzea    | 7.- Creación de la Comisión Especial de Cuentas de la presente legislatura para la aprobación de las Cuentas Generales del ejercicio correspondiente. |
| 8.- .Kreditu aldaketak. Kreditu Gaikuntza onartzea eta Kreditu Txertaketari buruz jakinaraztea                    | 8.- Modificaciones de crédito. Aprobar la Habilitación de Crédito e informar sobre la Incorporación de Créditos.                                      |
| 9.- Mankomunitateko funtzionarioen soldaren %0,5ko igoera, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako atzeraeraginarekin | 9.- Incremento del 0,5% del salario de los funcionarios de la Mancomunidad con efectos retroactivos al 1 de enero de 2023                             |
| 10.- GFArekin sinatutako hitzarmena aldatzeko beharra azaltzea.   | 10.- Explicar la necesidad de modificar el convenio suscrito con la DFG.  |
| 11.- Galdera, errengu eta proposamenak.   | 11.- Ruegos, preguntas y propuestas.  |

---

**Nahikoa quorum dagoenez eta Lehendakaria eta Idazkaria ere bertan daudenez, bilkura baliozki eratzen da.**

---

**1.- 2024/02/19(e)an egindako bileraren aktaren zirriborroa irakurri eta onartzea, bidezko bada.**

Lehendabizi, 2024/02/19 datako batzarraldiari dagokion aktaren onesprena Lehendakariak bozketa eraman du. Kontua da Lasarte-Oriako ordezkariak iruzkin batzuk egin zituela akta horren gainean eta idazkari-kontuhartzaleak ez duela astirik izan horiek azterzeko eta aktan sartzeko. Horregatik, datorren bileran akta horren onesprena bozkatuko da (eta, noski, akta hau bera ere).

**3.- Mankomunitateko euskara-irizpidei buruzko gaia eztabaidatzea eta tratatzea**

Gai ordeneko 2. puntu beranduagorako utzi dugu eta 3. puntura jauzi egin dugu, izan ere, Usurbilgo ordezkaria berandu iritsi da bilerara eta komeni da 2. puntu bere osotasunean entzutea.

Hemen Lasarte-Oriako ordezkariak hartu du hitza Mankomunitateko idazkari-kontuhartzaleak idatzitako txostenaren gainean iruzkin batzuk egiteko. Zalantza egin du ea hoberena den bileran bere zalantza edo kezka guztiak azaltzea edo aurrerago email bidez batzarkide guztiei bidaltzea. Azkenean, bi iruzkin txiki egin ditu eta gainontzekoa email bidez bidaliko duela adierazi du. Hauek dira egindako bi apunteak:

- 15. orrialdean, laneko hizkuntza, bizia, Mankomunitateko teknikarien eta politikoen arteko harremanean, ahozko harremanean, euskara lehenetsiko dela jartzen du, eta idazkari kontuhartzaleak horri buruzko ondorengo iritzia ematen du: "Izan liteke 179/2019 Dekretuko 19. Artikuluaren arabera. Haatik, ikusirik kide guztiak ez

dituztela euskarazko mezuak ongi ulertzen, aldi bereko interpretazioa erabil **liteke** (...). Lasarte-Oriako ordezkariak esaten duenaren arabera, bertan, anbigotasuna ekiditeko, hobeto litzateke “erabil liteke” aditza erabili ordez “**erabiliko da**” aditza erabiltzea.

- 16. orrialdean, Kudeaketa Batzordeko (...) idatzizko harremana arautzen denean, berriro ere, anbigutasuna ekiditeko, “**idaztea gomendatuko nuke**” aditza erabili beharrean “**idatziko dira**” erabili beharko litzatekeela adierazi du.

Idazkari-Kontuhartzaleak erantzun dio ulertzen duela bere ikuspuntua eta arrazoi duela. Kontua da, idazkari-kontuhartzalearen iritzi juridikoa besterik ez dela, eta hori aintzat hartu behar dutenak dira euskara teknikariak hizkuntza-irizpideen bigarren proposamena egiten dutenean. Beraz, nahiz eta epaitu beharko dena da hizkuntza-irizpideen bigarren proposamena, hori baita balioko duena, egia da Lasarte-Oriako ordezkariak dioena eta erabilitako aditzek, agian, anbigutasuna sortu lezaketela.

Urnietako ordezkariak adierazi du hizkuntza-irizpideekin eta txostenarekin ados dagoela, azken finean, garrantzitsuena dela hizkuntza-eskubideak kide guztiei bermatzea, bai euskaraz ondo dakitenei bai gainontzekoie.

Astigarragako ordezkariak, bestalde, zalantzan jarri du ea hitzarmen bat egin behar den edozer kontrastatu nahi denean. Bere kezka dator txostenaren hasieran jartzen duelako, hitzarmen baten bidez, sei udaletako euskara-teknikariek osatu zutela Euskara Batzordea (beraiek egin dute euskara-irizpideen proposamen hau), baina orain iraungita dagoela hitzarmen hori eta, horregatik, beste hitzarmen bat sinatu beharko litzatekeela euskara-irizpideen proposamen berria egiteko.

Idazkari-kontuhartzaleak erantzun dio kasu honetan hitzarmen bat sinatu beharko litzatekeela, Mankomunitatean ez baitago euskara teknikararik eta, horregatik, udaletako euskara-teknikarietaz baliatuko dela euskara-irizpideen proposamena jasotzeko eta gainontzeko kontsultak egiteko. Ez dela gauza bera gertatzen, adibidez, enpleguan, Mankomunitatean badagoelako enplegu teknikaria eta orduan udalekin edozein kontraste egitea posible dela hitzarmenik sinatu gabe, azkenean, kontraste bat delako, ez luketeelako udal-teknikariek ezer berirrik sortuko Mankomunitatearentzat.

## **2.- Mankomunitateko zerbitzuak eta egitasmoak azaltzea**

Puntu honetan, Zuzendariak azaldu die batzarkideei Mankomunitatean zertan ari den lanean eta zer egitasmoetan hartzen duen parte. Horretarako, aldez aurretek batzarkide guztiei bidalitako txostenaz baliatu da, eta ondorengo alorretan sakondu eta landu du Mankomunitatearen lanaren azalpena:

- a. EKINTZAILETZA: bertan sartzen diren zerbitzu (aholkularitza eta orientazio zerbitzua) eta egitasmoak (Txekin/emekin, Lanbide ekintzaile, Enpresa kudeaketa ikastaroak, ekintzailetza sozialaren programa) azaldu ditu eta, bukatutakoan, galdeku du ea norbaitek zerbait duen esateko edo zalantzarak duen, eta inork ez du ezer erantzun. Beraz, ontzat eman da bere azalpena.
- b. ENPRESA: hemen ere, batetik, azaldu du aholkularitza zerbitzua dugula, nahiz eta gaur egun errealtitate bat baino helburu bat dela. Etorkizunean hemen sakondu nahi dela. Bestetik, egitasmoak azaldu ditu (ETE Digitala, Hazinnova, Ingeneriak eta Eskualdeak hitzarmena). Bukatutakoan, norbaitek zerbait esateko edo zalantzarak duen galdeku du eta inork ez du ezer esan. Beraz, ontzat eman da puntu hau.
- c. ENPLEGUA: zerbitzu egonkorrik zeintzuk diren azaldu ditu (orientazioa, enplegu sozialaren artatzea eta prestakuntza). Bestalde, egitasmoak zeintzuk diren azaldu ditu (Elkar Ekin, Tokiko Enplegu Ekintzak, Hazilan+, Beterri Errrotuz, Maitelan). Elkar-Ekin egitasmoaren barruan programa desberdinak daudela adierazi du (Emaktiva, Prestakuntza-laneratze ibilbideak, kontratacio dirulaguntzak, gazteen inklusiorako ekosistema eta metodologia). Prestakuntza-laneratze ibilbidearen gainean Lanbidetik kritika jaso dugula adierazi du, izan ere, "pladur" formakuntza, batik bat, gizonezkoak ematen baitute izena eta "eremu Soziosanitariokoan", berriz, batez ere, emakumezkoak.

Bestalde, Zuzendariak esan du Elkar-Ekin egitasmoan arazotxoak izaten ari garela eta horrek murrizketak ekarriko dituela jaso beharreko finantzazioan. Arazoetako bat da Elkar-Ekinen egin genuen gure planteamendua nahiko korapilotsua eta nahaskorra dela, eta horrek emaitzak neurtzeko arazoak dakarrela. Hala ere, seguraski, murrizketak ekarriko dituen arazoak dira: batetik, legearen aldaketa dela eta, egoera irregularrean dauden pertsonak orain gizarte segurantzan altan emanda egon behar direla praktikak lortzeko lan-munduan, baina altan emanda egotea ezinezkoa zaie egoera irregularrean baitaude eta, bestetik, EAGIk eraikuntzako formakuntza eman behar zuen Europako Funtsetatik datorren dirulaguntza baten bidez finantzatua. Kontua da dirulaguntza hori berandu jasoko duela eta, beraz, ez diela denborarik emango apirilean hasteko zen formakuntzarekin hasteko. Beraz, arazo horiek Elkar-Ekini kalte egiten die eta, azkenean, horrek guk jaso behar dugun finantzazioan eragiten du.

Tokiko Enplegu Ekintzei buruz Zuzendariak adierazi du Lanbidek egin duen kritika: beti profil antzeko laneratzeak eskatzen ditugula (brigadako pertsonala), eta horiek programa bukatu ondoren lan-merkatuan benetako laneratzeak ez dituztela izaten, askotan, euskara maila baxua baitute.

Urnietaiko ordezkariek adierazi du ea Lanbidek kritika horrez gain, proposamen bat egiten duen, eta Zuzendariak ezetz erantzun dio.

Astigarragako ordezkariak, aldiz, kritika egiten dio Lanbideri. Denbora asko hartzen baitute lan egiterakoan eta, askotan, berandu ibiltzen dira. Horrek suposatzen du dirulaguntzaren bat argitaratzen dutenean, gainontzeko presaka ibili behar izatea proiektua prestatzeko eta bidaltzeko. Kexatu da, adibidez, bi urteetarako programa aterako balute, denbora gehiago izango genukeela proiektu txukun eta sakonago bat egiteko.

Lehendakariak honen inguruko bere ideia azaldu du eta, laburbilduz, izan da T.E.E. lotzea Enplegu Sozialarekin. Hala ere, hori lantzeko dagoela eta proposamen formal bat ekarriko duela esan du.

Urnietaiko ordezkariak esan du zaila ikusten duela adostasun batera iristea honen inguruan, baina uste du posible litzakeela, gutxienez, gutxieneko akordio batera iristea.

Azkenik, profil bereko kontratazioak egiten ditugunaren Lanbideren kritikaren harira, Astigarragako ordezkariak adierazi du agian guztioi interesatzen zaigun arlo bat landu litekeela, hala nola informatikariak kontratatzea. Urnietaiko ordezkariak adierazi dio agian zaila ikusten duela hori sektore horretako profesionalak falta direlako.

Lehendakariaren ustetan, proposamen tekniko bat behar da beharra zein den ondo identifikatzeko (jakiteko zer profileko pertsonak kontratatu) eta datorren deialdian ez bada, hurrengoan, eskaeran horiek sartzeko.

d. IRAUNKORTASUNA:

Zuzendariak adierazi du hemen ez duela Turismoa sartu, izan ere, nahi baino gehiago kostatzen ari delako Behemenditik traspaso hori egitea Turismoan, nahiz eta pixkanaka erresistentzia horiek puskatzea lortzen ari diren. Hortaz, gaiaren inguruan informazio osoa ez dugunez, beste baterako utzi da horren aurkezpena.

Beraz, aurreko kasuetan bezala, Iraunkortasuneko zerbitzuak (eskualdeko energia plana eta energia analisiak) eta egitasmoak (energia, natura, ondarea, mugikortasuna, klima aldaketa) zein diren azaldu ditu. Egitasmoen inguruan gai horiek oraindik lantzeke eta adosteke daudela adierazi du.

Zuzendariaren azalpenaren ostean, Lasarte-Oriako ordezkariak hartu du hitza eta iraunkortasuneko gaietan beraien kezka adierazi du. Oraindik ez omen dute ezer

argi baina hala ere martxoaren 18ko iraunkortasun-mahaira joango direla adierazi du.

Urnietako ordezkariak momentu hau aprobetxatu du jakinarazteko EMAUS entitateak Urnietan lokal bat irekiko duela eta Mankomunitatearekin egoteko naia dutela.

Lehendakariak adierazi du iraunkortasun gaiak lantzen jarraitu nahi dela eta, horretarako, komeniko litzatekeela argitzea eskumenen gaia.

Lasarte-Oriako ordezkariak esan du arazo bakarra ahokadura (encaje) juridikoa dela, izan ere, ez berak ez beraien idazkariak ez baitute argi ikusten Mankomunitateko Estatutuetan eskumenak ditugunik lan horiek egiteko. Hortaz, itxoiten ari da bere udalean teknikoki/juridikoki hori argitzera. Eskumenen gaia argi utzi nahi duenez, esan du arazoa guztiz juridikoa dela.

Urnietako ordezkariak adierazi du, adibidez, bide berdea GFAko eskumena dela.

#### **4.- ELKAR EKIN: eztabaidatzea EAGIren finantzazio falta beraien formakuntza aurrera eramateko.**

Zuzendariak adierazi du bertan behera utzi dela puntu hau, izan ere, aurreko puntuaren esan bezala, EAGI finantzazio gabe gelditu da apirilean hasten den eraikuntzako formakuntza emateko eta, hasiera batean, planteatu da ea posible den guk finantzatzea baina konturatuz gara denboraz larri gabiltzala kontratacioarekin hasteko. Beraz, bertan behar utziko dugu puntu hau.

#### **5.- Laneratze enpresa bat kontratatzeko oinarrizko informazioa eta konpromezua jasotzea udalen partetik, plegu bateratuak prestatzen hasteko.**

Lasarte-Oriako ordezkariak esan du denbora gehiago behar duela. Bere udalean honetan lanean ari dela, pertsona desberdinei proiektu hau aurkezten, ondo ulertu dezaten (berria izango litzatekeelako Udalean). Hala ere, azpimarratu du proiektu polita dela eta sinisten duela hortan, beraz, lanean ari dela bere udalean proiektu horretan ere sar daitezen.

Hernaniko ordezkariak esan du zalantzak zituela fakturazioaren inguruaren eta Marivirekin bildu zen horretarako eta argitu zituen bere zalantzak. Hala ere, mahai gainean jarri du berak Marivirekin izandako elkarritzetaren ondorioz ateratako bere ondorioak. Bere ustez, Beterri Errrotuz laneratze-enpresaren kezka handia da lana jasotzea udalen aldetik, baina ez edonolako lana. Askotan lan oso desberdinak

eskatzen dira eta agian egonkortasun gutxikoak eta beraiei hori ez zaie komeni. Beraz, Patxik azaldu du bere ustetan Beterri Erroutzek arazotxa izan dezakeela segun eta zer lan-mota edo zer lan-denbora eskatzen dituzten Udalek.

Urnietaiko ordezkariak esan du, beraien aldetik, banaketa zerbitzuak arazoak sortu baditzake, beraiek zerbitzu hori kentzeko prest egongo liratekeela.

Hernaniko ordezkariak esan du beraiek inguremanerekin lotutako lanak eskatuko dizkiela laneratze-enpresari, gutxi gorabehera, 60.000€n neurтуa.

Andoaingo ordezkariak ulertzen du Beterri Erroutzen egoera eta lan batzuk ezin direla planifikatu esan du.

Usurbilgo ordezkariak galdeitu dio idazkari-kontuhartzaileari ea iritsi zitzaion Usurbilgo teknikariak gai honen inguruan bidalitako emaila. Ezetz erantzun dio eta datorren egunetan bidaliko diola emaila esan dio.

#### **6.- Komunikazioa: Definitzea udaleko zer langilek jasoko duen Mankomunitateko boletina**

Zuzendariak azaldu du IAMETZA enpresarekin hasi garela barne-boletina prestatzen, Udaletan banatzeko. Honen harira, dagoeneko jaso dugula Udal bakoitzaren proposamena jakiteko udaletako zer teknikarik jasoko duten boletina. Zuzendariak proposatu du, agian, komeniko litzatekeela udaletan gehiago zabaltzea teknikarien eta departamentuen artean, adibidez, ez baztertzeko gizarte zerbitzuak.

Andoaingo ordezkariak begonez ikusi du Zuzendariak esandakoa eta aitortu du, agian, Enpleguaz eta Turismoaz gain, ondo legokeela beste ataletarera ere iristea barne-boletina.

Astigarragako ordezkariak bi proposamen egin ditu: a) hasiera batean bidaliko diren barne-boletinak udaletako teknikari guztiei bidaltzea eta teknikari bakoitzak izatea aukera bajan emateko boletina gehiago ez jasotzeko edo b) udaletako harrerara bidaltzea barne-boletina eta gero udal bakoitzak erabakitzea nola zabaldu hura.

Lehendakariak, erabaki bat hartzearen, esan du hasieran udaletako harrerara bidaliko dela barne-boletina, gero beraiek zabaltzeko udal barnean.

**7.- Dagokion ekitaldiko Kontu Orokorrak onartu ahal izateko legealdi honetako Kontuen Batzorde Berezia sortzea**

Nahiz eta bilera aurretik batzarkide guztiei bidali puntu honen azalpenaren txostenan, Idazkari-Kontuhartzaleak labur azaldu du zertan datzan puntu hau. 2023 ekitaldiko Kontu Orokorrak Batzar Nagusiak onartu baino lehen, Kontuen Batzorde Berezitik pasa eta onartu behar dira. Hortaz, proposatu da Gobernu Batzarreko kideak osatu dezatela, era berean, Kontuen Batzorde Berezia legealdi honetarako eta aho batez onartu da proposamena.

**8.- Kreditu aldaketak. Kreditu Gaikuntza onartzea eta Kreditu Txertaketari buruz jakinaraztea**

Nahiz eta batzarkide guztiei aldez aurretik txostenan bidali, Idazkari-Kontuhartzaleak azaletik azaldu die zertan datzaten kreditu aldaketa hauek. Batetik, kreditu gaikuntza egin nahi da 3.000€ dirusarrera berri bat jaso dugulako GFAtik, “lanaren zentzuaren” proba pilotoan lagunzeagatik. Beraz, 3.000€ horiek enpleguko gastu-partida batera egotziko dela adierazi die. Bestetik, kreditu txertaketak dira 2023. urtean Obligazio “O” fasera iritsi ez diren gastuak 2024ko ekitaldean txertatzeko, ekitaldi honetan iritsiko baitira O fasera.

Batzarkide guztiekin aho-batez onartu dute puntu hau.

**9.- Mankomunitateko funtzionarioen soldataren %0,5ko igoera, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako atzeraeraginarekin**

Idazkari kontuhartzaleak adierazi die 2023ko soldaten igoeraren bigarren 0,5% igoera emateko baldintzak bete direla, beraz, 2023ko urtarrila 1etik izango duen 0,5%ko soldata igoera onartu daiteke. Batzarkide guztiekin aho-batez hartu dute erabaki hori.

**10.-GFArekin sinatutako hitzarmena aldatzeko beharra azaltzea.**

Zuzendariak adierazi die hitzarmen bat dagoela sinatuta GFA eta Beterri Buruntza Udalak-en artean eta, horregatik, orain Beterri Buruntza Udalak aldatu behar da Beterri Buruntza Mankomunitateareangatik.

Beginez ikusi dute batzarkide guztiekin.

Gai Zerrendaz kanpo, *Galdera, erregu eta proposamen* atalera iritsi aurretik, eta gaiaren eztabaidea presazkoa dela iritzi ondoren, aho batez, eta beraz, batzarkideen gehiengo osoaren quorumarekin, ondoko erabakiak hartu ziren

**11.-Galdera, erregu eta proposamenak.**

- Lehendakariak azaldu du Maitelanen inguruan duela hilabete batzuk Maitelanekoak aurkezen bat egin zutela eta erabaki zela beraien proiektuari nolabait laguntzea. Aukera desberdinak zein diren aztertuta, dirulaguntza zuzena ematea dela egokiena ikusi zela eta, horregatik, hurrengo bileran dirulaguntza hori emateko hitzarmenaren zirriborroa landuta ekarriko dela esan du.

Eta beste aztergairik ezean, lehendakariak amaitutzat eman du ohiko batzarraldia, 14:07 minutu zirenean. Idazkari-kontuhartzaileak batzarraldiari dagokion agiri hau idatzi eta Lehendakariak irakurri eta ontzat eman ondoren, biek izenpetu dute, bat etorriz Toki Erakundeen Antolamendu, Jardunbide eta Araubideari buruz indarrean dagoen Erregelamenduaren 110.2 artikuluan agindutakoarekin. Eta horren guztiaren fede, nik, naizen honek, ematen dut.

**O.E., / Vº Bº  
Lehendakaria**

**1.- Lectura y aprobación, si procede, del borrador del acta de la reunión celebrada el 19/02/2024**

En primer lugar, la Presidenta somete a votación la aprobación del acta correspondiente a la sesión celebrada el 19/02/2024. El caso es que la representante de Lasarte-Oria hizo unos comentarios sobre dicho acta y el secretario-interventor no ha tenido tiempo de analizarlos e incluirlos en el acta. Por ello, en la próxima reunión se someterá a votación la aprobación de dicho acta (y, por supuesto, también la presente).

**3.-Tratar y debatir sobre los criterios-lingüísticos de la Mancomunidad**

Dejamos el punto 2 del orden del día para más tarde y saltamos al punto 3, ya que la representante de Usurbil ha llegado tarde a la reunión y conviene escuchar el punto 2 en su integridad por todos los representes.

Aquí toma la palabra la representante de Lasarte-Oria para hacer algunos comentarios sobre el informe redactado por el Secretario-Interventor de la Mancomunidad. Duda sobre si es mejor plantear en la reunión todas sus dudas/inquietudes o enviarlas más adelante por email a todos los asistentes. Finalmente, hace dos pequeños comentarios y dice que enviará el resto por email. Estos son los dos apuntes realizados:

- En la página 15, lengua de trabajo, señala que en la relación entre técnicos y políticos de la Mancomunidad, en la relación verbal, se priorizará el euskera, y el Secretario Interventor, en su opinión de legalidad, comenta: "Según el artículo 19 del Decreto 179/2019, podría ser. Sin embargo, viendo que no todos los miembros entienden bien los mensajes en euskera, **se podría utilizar** una interpretación simultánea (...)" . Según la representante de Lasarte-Oria, para evitar la ambigüedad sería mejor utilizar el verbo "**se va a utilizar**" en lugar del verbo "se podría utilizar".
- En la página 16, cuando se regula la relación escrita en la Comisión Gestora (...), vuelve a señalar que, para evitar ambigüedades, se debería utilizar "**se van a escribir**" en lugar de "**recomendaría escribir**".

El Secretario-Interventor le contesta que entiende su punto de vista y que tiene razón. El caso es que se trata de la opinión jurídica del secretario-interventor, y quienes deben tenerlo en cuenta son los técnicos de euskera cuando realicen la segunda propuesta de criterios lingüísticos. Por tanto, aunque lo que habrá que juzgar es la segunda propuesta de criterios lingüísticos, que es la que va a servir, lo cierto es que tiene sentido lo que dice la representante de Lasarte-Oria y que los verbos utilizados, tal vez, podrían generar ambigüedad.

El representante de Urnieta manifiesta que está de acuerdo con los criterios lingüísticos y con el informe y que, en definitiva, lo más importante es garantizar los derechos lingüísticos a todos sus miembros, tanto a los que saben bien euskera como al resto.

El representante de Astigarraga, por su parte, cuestiona si hay que hacer un convenio cuando se quiera contrastar cualquier cosa. Su preocupación viene porque al inicio del informe pone que, a través de un convenio, los técnicos de euskera de los seis ayuntamientos formaron la Comisión de Euskera (ellos mismos han hecho esta propuesta de criterios de euskera), pero que ahora ese convenio está vencido y que, por ello, habría que firmar otro convenio para hacer una nueva propuesta de criterios de euskera.

El Secretario-Interventor responde que en este caso se debería firmar un nuevo convenio, ya que en la Mancomunidad no hay personal técnico de euskera, por lo que se utilizará a los técnicos de euskera de los ayuntamientos para recoger la propuesta de criterios de euskera y realizar el resto de consultas. Cuestión distinta es lo que ocurre, por ejemplo, en el Empleo, porque en la Mancomunidad existe una técnica de empleo y entonces cualquier contraste con los ayuntamientos es posible sin firmar un convenio, porque al final, por ser un contraste, los técnicos municipales no crearían nada nuevo para la Mancomunidad.

## **2.-Explicar los servicios y actuaciones realizados por la Mancomunidad**

En este punto, la Directora explica a los asistentes en qué está trabajando la Mancomunidad y en qué proyectos participa. Para ello, se ha valido del informe remitido previamente a todos los participantes, y ha profundizado y trabajado la labor de la Mancomunidad en los siguientes campos:

- a. EMPRENDIMIENTO: expone y explica los servicios (asesoramiento y orientación) y proyectos (Txekin/emekin, Lanbide ekintzaile, cursos de gestión empresarial, programa de emprendimiento social) que se incluyen en el mismo y, una vez finalizado, pregunta si alguien tiene algo que decir o tiene alguna duda y nadie responde. Por tanto, se ha dado por buena su exposición.
- b. EMPRESA: También aquí, por un lado, explica que tenemos un servicio de asesoramiento, aunque hoy en día es un objetivo más que una realidad. Que en el futuro se quiere profundizar en este punto. Por otro lado, explica los proyectos (Convenio Pyme Digital, Hazinnova, Injeneriak y Eskualdeak). Al terminar, ha preguntado si alguien tiene algo que decir o tiene alguna duda y nadie ha dicho nada. Por lo tanto, se da por bueno este punto.
- c. EMPLEO: explica cuáles son los servicios estables (orientación, atención al empleo social y formación). Por otro lado, ha explicado cuáles son los proyectos (Elkar Ekin, Acciones Locales de Empleo, Hazilan+, Beterri Errotuz, Maitelan).

Indica que dentro del proyecto Elkar-Ekin hay diferentes programas (Emaktiva, trayectoria de inserción laboral, subvenciones a la contratación, ecosistema y metodología para la inclusión juvenil). Señala que desde Lanbide hemos recibido una crítica sobre la trayectoria de inserción laboral, ya que en la formación sobre el "pladur" se inscriben sobre todo hombres y en el "ámbito sociosanitario" sobre todo, mujeres.

Por otra parte, la Directora dice que estamos teniendo pequeños problemas en Elkar-Ekin y que eso va a suponer recortes en la financiación a recibir. Uno de los problemas es que el planteamiento que hicimos en Elkar-Ekin es bastante enrevesado y confuso, lo que supone un problema para medir los resultados. Sin embargo, probablemente los problemas que acarrearán la reducción son: por un lado, debido a la modificación de la ley, la necesidad de que las personas en situación irregular estén dadas de alta en la seguridad social para acceder a las prácticas en el mundo laboral, pero por encontrarse en situación irregular, no les es posible estar dados de alta y, por otro lado, EAGI debía impartir una formación de construcción financiada por una subvención procedente de los Fondos Europeos. Lo que pasa es que esta subvención la va a recibir tarde y, por tanto, no les va a dar tiempo a empezar con la formación que, en un principio, iba a empezar en abril. Por lo tanto, estos problemas perjudican a Elkar-Ekin y, al final, eso repercute en la financiación que nosotros tenemos que recibir.

Respecto a las Acciones Locales de Empleo, la Directora señala la crítica que ha hecho Lanbide: que siempre pedimos incorporaciones con un perfil similar (personal de brigada), puesto que una vez finalizado el programa no suelen tener incorporaciones reales en el mercado laboral, ya que en muchas ocasiones tienen un nivel bajo de euskera.

El representante de Urnieta pregunta si además de esta crítica Lanbide ha hecho alguna propuesta, a la que la Directora le responde negativamente.

El representante de Astigarraga, en cambio, critica a Lanbide. A menudo se toman su tiempo y tardan bastante a la hora de trabajar. Esto supone que cuando publican alguna subvención el resto tengamos que darnos prisa para preparar y enviar el proyecto. Se queja, por ejemplo, de que si sacaran el programa para dos años, tendríamos más tiempo para hacer un proyecto más decente y de mejor calidad.

La Presidenta expone su idea al respecto y, en resumen, se trata de vincular las A.L.E. con el Empleo Social. No obstante, dice que eso está por trabajar y que traerá una propuesta formal.

El representante de Urnieta dice que ve difícil llegar a un consenso sobre esto, pero cree que sería posible, al menos, llegar a un acuerdo de mínimos.

Por último, al hilo de la crítica de Lanbide en la que dice que realizamos contrataciones con el mismo perfil, el representante de Astigarraga señala que igual se podría trabajar un área que nos interesa a todos, como es la contratación de informáticos. El representante de Urnieta le indica que quizás lo ve difícil porque faltan profesionales de este sector.

La Presidenta considera que es necesaria una propuesta técnica para identificar bien cuál es la necesidad (para saber qué perfil contratar) y si no es en la próxima convocatoria, en la siguiente, incluirlas en la solicitud.

d. SOSTENIBILIDAD:

La Directora señala que aquí no ha incluido el Turismo porque está costando más de lo deseado que haya ese traspaso por parte de Behemendi en todo lo relacionado con el Turismo, aunque poco a poco se está consiguiendo romper esas resistencias. Por lo tanto, al no disponer de información completa sobre el tema, se deja para otra ocasión su presentación.

Por lo tanto, como en los casos anteriores, ha explicado cuáles son los servicios de Sostenibilidad (plan regional de energía y análisis energéticos) y los proyectos (energía, naturaleza, patrimonio, movilidad, cambio climático). Indica que los proyectos están pendientes de aclarar y de conseguir un consenso para poder empezar a trabajar.

Tras la exposición de la directora, toma la palabra la representante de Lasarte-Oria, quien manifiesta su preocupación por los temas de sostenibilidad. Dice que todavía no tienen nada claro sobre este tema pero que sin embargo van a ir a la mesa de sostenibilidad del 18 de marzo.

El representante de Urnieta aprovecha este momento para comunicar que la entidad EMAUS va a abrir un local en Urnieta y que estos tienen la intención de estar con la Mancomunidad.

La Presidenta señala que se quiere seguir trabajando en temas de sostenibilidad y que quizás convendría aclarar el tema de las competencias.

La representante de Lasarte-Oria dice que el único problema es el encaje jurídico, ya que ni ella ni su secretaría ven claro que tengamos competencias en los Estatutos de la Mancomunidad para realizar estas tareas. Por lo tanto, está esperando en su ayuntamiento a que se aclare técnica/jurídicamente el tema. Como quiere dejar claro el tema competencial, dice que el problema es totalmente jurídico.

El representante de Urnieta señala, por ejemplo, que la vía verde es competencia de la DFG.

**4.-ELKAR EKIN: tratar el tema de la falta de financiación de EAGI para que lleven a cabo su formación**

La Directora dice que se ha cancelado este punto porque como se ha dicho en el punto anterior, EAGI se ha quedado sin financiación para la formación de construcción que comienza en abril y, en principio, se llegó a plantear si es posible financiarlo nosotros pero nos hemos dado cuenta de que estamos apurados de tiempo para empezar con la contratación. Por lo tanto, debemos dejar este punto.

**5.-Recibir de parte de los Ayuntamientos información básica y el compromiso para la contratación de una empresa de inserción, para poder comenzar a elaborar pliegos conjuntos**

La representante de Lasarte-Oria dice que necesita más tiempo. Que en su ayuntamiento está trabajando en esto, presentando este proyecto a diferentes personas para que lo entiendan bien (porque sería nuevo en el Ayuntamiento). No obstante, subraya que es un proyecto bonito y que cree en él, por lo que está trabajando en su ayuntamiento para que también se participen en él.

La representante de Hernani ha dicho que tenía dudas sobre la facturación y se reunió con Mariví para ello y despejó sus dudas. Sin embargo, ha puesto sobre la mesa sus conclusiones a raíz de la conversación que ella misma mantuvo con Mariví. A su juicio, «la gran preocupación de la empresa de inserción laboral Beterri Erroutz es recibir trabajo por parte de los ayuntamientos, pero no cualquier trabajo». Muchas veces se piden trabajos muy diferentes y quizás con poca estabilidad y a ellos eso no les conviene. Por lo tanto, Patxi explica que en su opinión Beterri Erroutz puede tener un pequeño problema dependiendo del tipo de trabajo o tiempo de trabajo que soliciten los Ayuntamientos.

El representante de Urnieta dice que, por su parte, si el servicio de distribución puede generar problemas, ellos estarían dispuestos a suprimirlo.

La representante de Hernani dice que ellos pedirán a la empresa de inserción trabajos relacionados con el medio ambiente, valorados aproximadamente en 60.000 €.

El representante de Andoain entiende la situación de Beterri Erroutz y dice que hay trabajos que no se pueden planificar.

La representante de Usurbil pregunta al Secretario-Interventor si le llegó el email enviado por el Técnico de Usurbil sobre este asunto. Responde que no y le dice que en los próximos días le enviará un email.

**6.-Comunicación: definir qué personas recibirán el boletín emitido por la Mancomunidad**

La Directora explica que hemos empezado a preparar el boletín interno con la empresa IAMETZA para distribuirlo en los Ayuntamientos. En este sentido, ya hemos recibido la propuesta de cada Ayuntamiento para conocer qué técnico/a municipal ha recibido el boletín. La Directora propone que quizás convendría que en el Ayuntamiento se extendiera más entre técnicos/as y departamentos, por ejemplo, para no excluir a los servicios sociales.

El representante de Andoain observa positivamente lo dicho por la Directora y reconoce que quizás, además de Empleo y Turismo, estaría bien que el boletín interno llegara a otros departamentos.

El representante de Astigarraga hace dos propuestas: a) enviar a todos los técnicos municipales los boletines internos que se van a enviar al principio y que cada técnico pueda darse de baja para no recibir más boletines o b) enviar el boletín interno a la recepción municipal y luego decidir cada ayuntamiento cómo difundirlo internamente.

La Presidenta, a fin de tomar una decisión, dice que inicialmente se enviará el boletín interno a la recepción del Ayuntamiento para su posterior difusión dentro del Ayuntamiento.

**7.- Creación de la Comisión Especial de Cuentas de la presente legislatura para la aprobación de las Cuentas Generales del ejercicio correspondiente**

Aunque con anterioridad a la reunión se ha remitido a todos los asistentes el informe explicativo de este punto, el Secretario-Interventor ha explicado brevemente en qué consiste este punto. Las Cuentas Generales del ejercicio 2023 deberán ser aprobadas por la Comisión Especial de Cuentas antes de su aprobación por la Asamblea General. Por lo tanto, se propone que los miembros de la Junta de Gobierno formen parte de la Comisión Especial de Cuentas para esta legislatura y se aprueba la propuesta por unanimidad.

**8.- Modificaciones de crédito. Aprobar la Habilitación de Crédito e informar sobre la Incorporación de Créditos**

Pese al informe previo remitido a todos los participantes, el Secretario-Interventor les ha explicado por encima en qué consisten estas modificaciones de crédito. Por un lado, la habilitación de crédito se pretende porque hemos recibido de la DFG un nuevo ingreso de 3.000 € por colaborar en la prueba piloto del "sentido del trabajo". Por tanto, les indica que esos 3.000 € se imputarán a una partida de gasto relacionado con el empleo. Por otro lado, las incorporaciones de crédito son aquellos gastos que en el año 2023 no han alcanzado la fase de Obligación "O" para incorporarlos al ejercicio 2024, ya que en este ejercicio llegarán a la fase O.

Todos los participantes aprueban este punto por unanimidad.

**9.- Incremento del 0,5% del salario de los funcionarios de la Mancomunidad con efectos retroactivos al 1 de enero de 2023.**

El Secretario-Interventor les indica que se han cumplido los requisitos para conceder el segundo 0,5% de incremento salarial para 2023, por lo que se puede aprobar un incremento salarial del 0,5% que surtirá efectos desde el 1 de enero de 2023. Este acuerdo ha sido adoptado por unanimidad de todos los participantes.

**10.- Explicar la necesidad de modificar el convenio suscrito con la DFG.**

La Directora les indica que hay un convenio firmado entre la DFG y Beterri Buruntza Udalak, por lo que ahora hay que cambiar Beterri Buruntza Udalak por el de Beterri Buruntza Mankomunitatea.

Lo han aprobado unánimemente todos los asistentes.

Fuera del Orden del Día, antes de llegar al apartado de Preguntas, ruegos y propuestas, y tras considerar urgente el debate del asunto, por unanimidad, y por tanto con el quórum de la mayoría absoluta de los participantes, se adoptaron los siguientes acuerdos

**11.- Ruegos, preguntas y propuestas.**

La Presidenta explica en torno a Maitelan que hace unos meses los de Maitelan hicieron una presentación y se decidió ayudar de alguna manera a su proyecto. Dice que analizando las diferentes opciones se vio que lo más adecuado era la concesión de la subvención directa, por lo que en la próxima reunión se traerá elaborado el borrador del convenio de concesión de dicha subvención.

Y sin más asuntos que tratar, la Sra. Presidenta da por finalizada la sesión ordinaria, siendo las 14:07 horas. Redactado por el Secretario-Interventor el presente documento de la Sesión, leído y aprobado por la Presidenta, lo firman ambos de conformidad con lo dispuesto en el artículo 110.2 del vigente Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen de las Entidades Locales. Y de todo esto doy fe yo, que soy.

**Vº Bº/Vº Bº**  
**La Presidenta**



## **Sinaduren laburpena / Resumen de firmas**

**Titulua / Título:**

2024BG010003-akta elebietan/acta bilingüe (BETERRI BURUNTZA)